

Noqua!!!

H A M A B O S K A R I A

2000ko martxoaren 3a V.urtea

Usurbil, 84. zenbakia



**Emakumeak
autobusak eta
kamioiak gidatuz**

Zatoz gurera
garagardo ona
edatera!



Inauterietan zain
gauzkazu!



Noaia! Kultur Elkartearen
egoitzan salgai!!



Bazkideek: 500 pezeta
Gainontzekoek: 975 pezeta



TXIMINIA
ALTZARIAK



ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta
lastaira-azpikoen aukera haundia

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Leire!** Martxoaren 4an sei urte beteko dituzenez muxuak zuretzat. Zure familia.



Zorionak **Alex** zure zazpigarren urtebetetzean. Zure guraso eta anaien partetik urteasjoan!



Zorionak **Josu!** Otsailaren 23an zure lehen urtebetetze eguna izan zenez muxu haundi-haundi bat aita eta amaren partez.



Zorionak **Christian** martxoaren 11n zazpi urte beteko baitituzu. Zure gurasoak, aiton-amonak eta anaiaren partez.



Urte askotarako **Angela!** Txokoaldeko politenak martxoaren 1ean bete zituen urteak. Bejondeizula amona! Zure familia.



Zorionak pitxin, martxoaren 9an 4 urte beteko dituzulako. Muxu haundi bat ama eta aitaren partez.



Zorionak **Agurne!** Zu ere aterako ez zinelakoan edo? Martxoaren 1ean zure urtebetetze eguna izan zenez besarkada bat. Etxekoak.



Tamalez, urtez urte aurpegiak aldatuz joaten dira. Zorionak Txelin, Iñigo eta Iñaki. Jarraitu Horrela! kuadrilatarrak!!!



Zorionak **Isabel Torres** eta **Aitor Lopez!** Martxoaren 4an zuen urtebetetze eguna dotore asko ospatuko dugu elkarrekin. Muxuak etxekoan partetik.



Zorionak **Edurne** eta **Mikel!** Datorren martxoaren 9an 16 urte beteko dituzue. Ez pentsa ahaztu garenik, ondo pasa eta prestatu pastela. Muxu bat gurasoen partez.



Zorionak **Hikiya!** Martxoaren 2an hire urtebetetze eguna izan hunan. Espero dugu ondo pasako zenuela. Gu han egongo gaitun betiko lekuan hire zain. Kuadrilatarrak

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarri jarri beharreko testua eta argazkia.
Hurrengo alea: martxoaren 10a
Ekartzeko azken eguna: martxoaren 6a

Hildakoak

2000-02-15
Jesusa Izagirre Peña
86 urte
Arratzain bidea

Jaiotzak


Ainhoa Perez Arruti
(2000-02-23)
Txikiardi

XABIER EDARITEGIA

Etor zaitez,
eta dasta itzazu
Goierriko produktuak

X Idiazabal gazta
X Beasaingo odolkiak...

Kontseju zarra, 13 ☎ 943 36 04 66



Igandetan ganba-ziri mundialak!

Kale Nagusia, 9 USURBIL
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

LABE-GOXO
Orindegia Gaztegia

**Argitaratzailea**

Noaia! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaia@topagunea.com
Web orria:
<http://www.topagunea.com/noaia/>

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Manuel Begiristain, Eukene Kamino, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

Erredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Garikoitz Udabe eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaia! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaia! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Azala

Ana Aizpurua Aizpuruako autobus baten bolantearen aurrean

Zer irizten?



Arrazismoaren pizkundea El Ejidon

Belen Piñas (Lasarte-Oriako SOS Arrazakeriako kidea)

Azken asteetan bertako eta Marokoko etorkinen artean istilu ugari izan dira Almeriako El Ejido herrian.

Marokoko gazte batek herriko neska gazte bat hil zuenean hasi ziren istiluak eta horren ondorioz etorkinek jazarpen izugarria jasan dute herritarren aldetik. Ekintza hau guztiz gaitzegarria da, baina ezin daiteke, horregatik, pertsona talde oso bat kriminalizatu. Izan ere, etorkin talde horretan, gizarteko beste edozein taldetan bezala, pertsona zintzoak, gaiztoak, itsusiak, politikak... baitaude.

El Ejidon bizi den etorkin taldearen lan-baldintzak nabarmentzea garrantzitsua iruditzen zait. Lan-baldintza oso gogorrez hitz egiten ari gara, soldata oso baxuak dituzte eta lanorduak berriz asko. Bitartekorik ez dutenez, enpresari higuinagarriztat lan egitera behartuak dauden langile talde baten eskubide ezaz hitz egiten ari gara. 12 orduko lanegun bakoitzeko 2.000 pezetako soldata ordaintzen duten enpresariak dira horiek.

Egoera ekonomiko, sozial eta politiko hobe baten bila, beraien herritik ihesi etorri den pertsona talde oso bat ezin da kriminalizatu. Zein da hauen delitua? Beraien herrialdea uztea? Egunean 12 orduz 2.000 pezetaren truke lan egitea? Kultura ezberdina izatea?

Bizitzeko lekuari dagokionez, egoera ez da hobea. Horietako askok lana egiten duten lekuan bertan bizi dira, beste batzuk barrakoietan, txaboletan, badaude erortzearen dauden etxeetan bizi direnak ere. Argi dago, irabazten dutenarekin ezin dutela baldintza hobegoak izango lituzketen lekuetan bizi.

Etorkinen taldeen inguruan sortu den pobrezia eta ustiapenezko egoera sozial horrek bazterketa sorrarazten du maila handi batean. Horrek era berean, El Ejidon argi ikusi den bezala, etorkinen bizi baldintzen ondorioz herritarren eta etorkinen arteko borroka dakar.

Lasarteko SOS Arrazakeria taldeak, etorkinen aurka egiten diren honelako ekintza arrazista eta xenofogoak salatu nahi ditugu. Aldi berean, pertsonen onarpena defendatzen dugu. Berdin zaigu Espainiar estatuan hauen egoera erregularra edo irregularra den.

Duela gutxi onartu berri duten "Extranjeriaren legeak" ez duela ezertarako balio uste dugu, eta lege hori ezereztatzeko borrokatzen ari gara. Izan ere, lege horrek ez du arazoa konponduko. Integraziorako programa batzuk sortu behar direlakoan gaude, ideiak bizipenak, esperientziak, baloreak... elkarrekin landu eta trukatzeko beharrezkoak dira programa horiek.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herria!


ika-mika
EAJ/PNVren oharra

Usurbilgo EAJ-PNVk usurbildar guztiei zera jakinarazi nahi die: Eusko Alderdi Jeltzaleak otsailaren 17an egindako batzarrean aho batez Earekin duen hauteskunde hitzarmena bertan behera uztea erabaki duela. Eak erakutsi duen hitzarmen honetarako lehiatasun falta eta elkar lanerako zailtasunak direla eta hartu du erabaki hau.

Hitzarmenarekiko lehiatasun falta eta EAJ-PNVrekin elkarlanean jarduteko interes falta Eak pleno batzuen

aurrean ikusi da, konkretuki, Atallu industrialdearekiko izan duen jarrera aldaketa salatu nahi dugu. Eak iruzurra egin digu, gure bizkar eta hauteskunde programaren aurka, EHrekin egindako akordio batzuekin.

Earekin egindako koalizio akordioarengatik, EAJ-PNVek gobernu batzordean parte hartzea eta zerbitzu eta obrak batzordearen zuzendaritza bereganatzea onartu zuen. Lehen azaldutako arrazoiengatik, gobernu batzordeko ordezkariak eta zerbitzu eta obrak batzordearen zuzendaritza uztera behartu-

ta aurkitzen gara. Beraz, batzorde guztietan parte hartzen jarraituko dugu oposizio eraikitzaile bat eginez, beti, gure ustez, usurbildarren onerako diren jarrerak hartuaz.

Usurbilgo EAJ-PNV

Irakurle, kexarik baduzu, herritarrei zerbait esan nahi badiezu tarte hau da zuretzat aproposa. Atal honetako gutunak ezinez sinatu daitezkeen arrez Noauak beti jakin behar du nork idatzi duen. Gutunak Noauara bidali edo bertako buzoian utzi. Eskutitzak orrialde erdikoak izan behar dute, 1200 karaktere ingurukoak.


xirrikitutik


Zorroako zubian berritze lanak aspaldi amaitu ziren. Hainbat aldiz agertu da aldizkari honetan azken urteetan, baina oraingoran beste iturri batetik iritsi zaigu berria. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak kultur ondasun izendatuko du laister. Guztira Gipuzkoako 27 zubi izendatuko dira, baina horietako lau baka-rik izango dira maila gorenekoak, eta Zorroako zuba izango da horietako bat. XVII. mendeko zubirik esanguratsuena omen da Santueneara joateko pasa behar den zuba

P A T R I
J A T E T X E A

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)


HERRIKO TABERNA


Astebukaeretan bokatak, plater
konbinatuak, pintxo beroak...

Euskal presoak etxera!

Tel. 943 36 02 17

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



ESTRELLA
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak
zure zerbitzurako

Zubizumona, 10
Tel. 943 37 18 07 - Fax.: 943 37 63 41

TXOKOALDE

Iñaki Labaka



Batzarra Erroizpe elkarte

Erroizpe Elkarteko zuzendaritza batzordeak, martxoaren 12an batzar orokorra egingo dela iragarri du. Lehenengo deialdia hamaiketan izango da eta bigarrena ordu erdi beranduago. Bertan, diru kontuak zehazteak izango du tarte zabalena.

Batzar honetara 80 bazkide inguru deituta gaude. Hauetatik gehiengoa, nahiz ea jatorriz auzokoa izan, gaur egun Txokoaldetik kanpo bizi da. Agian horregatik, neurri handi batean neguan nabarmenago, astegunetan ez da mugimendu handirik izaten elkarte

tzen badira nahikoa, arratsalde ez baita ia inor egoten, eta gauetz duela urte batzuk gehiago biltzen baziren ere, egunero joaten ziren zenbait bazkide hiltzen joan dira eta gaur egun ohizko hiruçlau bazkide joaten dira bere kafetxoa hartzera. Tristeia bada ere, inor agertu gabeko gauak ere izaten dira zoritxarrez, gutxi batzuk izaten dira.

Asteburuetan jende gehiago biltzen da, bai eguerdian bai gauean. Udara partera hurbiltzen ari garen moduan, jendea gero eta gehiago sartzen da elkarte

(Sanestebanak etab.), urte osoan toki zabala zena poxpolu kaxa bihurtzen zaigu. Orduan hor ibiltzen gara ezin kabituz. Eskerrak kanpoko plazatxoan mahaiak jarri zituzten bestela...!

Bestalde, garai batean kartetan jokatzeko joera handia zegoen, giro ederra sortuz. Orain berriz, oso jende gutxi ikusten da kartekin eta jokatzeko den pixka puntuan, emakumeak tartean direlarik. Urtean zehar sagardo eta ardo barrikoak antolatzen dituzte giroa berotzeko eta bazkideak erakartzeko. Eskertzekoak ahaleginak, ea horrela maizago gerturatzeko garen gure txokora.

KALEBERRI

Jokin Zubiaur



Noaua! gainbegiratur...

Ostiralerako egin behar; igandea iritsi eta oraindik kronika egin gabe! Azterketen ondorena izango da; ahaztu

egin baitzait kronika idaztea. Baina...*Noaua!*-ko kazetariaren errieta entzun eta gero alperkeriak utzi behar.

Gainera, zer idatzi ez dakidala aurkitu naiz, ez bainaiz arduratu herrian gertatu denaz eta notizia izango denaz. Horrela nengoela, aurreko Noaua!-ren aleari gainbegiradaxo bat eman diot, orain arte idatzi ditudan kroniketaren batean ere baliatu bainaiz hamaboskariak. Begiradaxoa hasi eta berehala, Ibai Ondo elkarteaz Agustin Esnaolak idatzitakoa topatu dut.

Irakurri dugun gehienak poztuko ginen elkarte honen eraba-

kia jakitean; eta argi dago, zuzen-zuzen esaten ez badu ere, Usurbilgo beste elkarteak erabaki bera hartzera bultzatzen dituela.

Ni, horregatik eta kaleberriko kronika idazten dudalako, nere kaleko elkarteari, Andatzperi zuzentzen natzaio, erabaki bera har dezan.

Izan ere, aukera ederra dute 3.milurtekoan sartuko garen honetan kronologi zenbakiak bakarrik aldatzen utzi ez eta ohitura txarrak ere alde batera uzteko.

Gaizki eginak barkatuko dizkiedazuelakoan, hurrengorarte!




KALEZAR

Auspo zaharrak gogoan

Sarritan entzun izan dugu ez dela garai batean egiten ziren erromeriak berdinduko dituen ezer aurkitzen gure euskal plazetan, eta hala da Usurbilen ere. Hori dela eta, gertu bizi dudan gai bat dela kontuan harturik, garai batzuta-ko erromeriei buruz jardutera noakizue.

Nork ez ditu gogoratzen (edo "Rock and Roll" zaleek gutxie-



nez haiei buruz entzun) **Elgeta, Iturbide** edo **Landakandaren** soinuak eta baita beste hainbat panderojole? (izan ere, hauek gabe soinu txikia alarguna litzateke). Haiek bai erromeriak! Larraitz, Aia, Iturriotz... auspo zahar haiek bazuten indarra!

Honekin guztiarekin aditzera eman nahi dudana zera da: erromeri giro hauek berpiztu beharrean aurkitzen garela, berrindartu egin behar ditugula. Aurrerakoienek beraien oztopo gisa hartuko naute ziur-reenik, baina ez da hala. Neroni naiz tendentzia berrien zaletue- netako bat eta soinu txikia esparru berrietara zabaldu

Andoni Udabe



nahi nuke, baina beti ere gure-ari trinko eutsiz. Sustrairik gabe ez dago lorerik; loreak ernaltze-ko azpitik oinarri bat behar du, baita trikitixak ere.

Gure herrian horrelako jai giroak egin izan dira (eta egi-ten dira, baina ez lehengo modu hartan): Santa Ageda bezpera, Oilasko biltzeak, San Juan eskea, Gabon gaua,... horrelakoak berriro esnarazi beharko genituzke. Horra nere gonbitea!

Ea ba gure herrian soinu tti-kiak duen indarra agerian uzten dugun. Batzuk dantzan, besteak joaz, besteak abes- tuz,...altxor horri hautsa kendu eta dizdira atera behar diogu.

ATXEGALDE

Ohiturak aldatzen

Azken hilabeteotan alda- keta nabaria izan dugu gure artean. Lehenago baraz-kiak, fruta edota edozer gauza behar genuenean, bertantxe genuen denda. Eguraldi txarra zenean ere ederki asko zetorki- gun denda etxe alboan iza- tea. Aukera hori estimatzekoa izaten zen.

Orain, berriz, herriraino joan behar eta hor gabiltza gora eta behera, letxuak edo porruak falta direla auzotik atera egin behar. Hala ere, ogia eta egunkaria, behintzat, bertan ditugu. Maria Luisak harategian biak ditu eta

Aldatzen ere egunkaria badaukagu.

Orain dela hogeit bat urte, aukera bikaina genuen auzo honetan, hiru denda baikenituen elkarren ondoan eta denetarik egoten zen.



Maria Jesus Urbietta



Oraingo progresu izeneko honek, tamalez, honelakoak ekartzen ditu eta laister auzoe- tan ez dugu ezer izango.

Bestetik, orain dela gutxi Atxega Jauregia zabaldu dute. Lehen Kandela jatetxea ere bazen eta orain, Jauregiarekin, mugimendu handia nabaritzen da Zumartegi industrialdean. Gora eta behera ibiltzen dira kamioi eta berebilak eta ordu batzuetan, batez ere, izugarria izaten da jendearen emana. Gainera horko lantokiak ere ugaritu egin dira eta hau guz- tia nabaritzen da.

SANTUENEA

Orain ere kexuka!

Ez da lehendabiziko aldia kexuka natorrela, arrazoiak ez zaizkit falta behintzat horretarako! Oraingo honetan bi kexurekin natorkizue.

Batetik, aipatu tren-pasabidea oso egoera txarrean dagoela. Bidexka hau zuloz beteta dago eta arrisku handia dago estropezu egiteko. Pasabide honetan batek baino gehiagok egin du estropezu eta zauri larriak egin. Egun hauetan gainera areagotu egiten da arriskua, bertan burutzen ari diren konponketak lanak direla eta. Beraz, bada garaia

pasabide hau lehenbailehen konpontzeko, edota arrisku haun ahal den neurrian sahiesteko..

Tartetxo honetan azaldu nahi dudan bigarren kexua honako hau da. Ingemarko garraiolariei eskatu nahi nieke oinezkoentzat dardaren pasabideak errespetatzea. Kamioiak askotan tren-pasabidearen aurrean egoten dira aparkatuta eta ez dago bertatik pasatzeko tokirik. Egia da ez dutela kamioiak

Agurtzane Solaberrieta



uzteko aparkalekurik, baina nahiz eta eurak kulparik ez izan ahalegin bat egitea eskatuko nieke pasabide hau ahal duten neurrian libre uzteko.



URDAIAGA

Andatza biluzten

Gauza jakina da Andatza mendia Diputazioarena dela eta duela urte dexente aurreikusia zuela Andatzako zuhaitzak ateratzea. Ba heldu da aurreikusitako garaia, hasiak baitira zuhaitzak ateratzen. Dagoeneko Txerri-bizka-



rretik, Ziortza eta Loatzu arteko guztia moztu dute eta une honetan Armiermoteitik Oiardo aldera doan guztia mozten ari dira. Honekin guztiarekin Andatzaren itxura zeharo aldatzen ari da.

Baina hau ez da gehien kezkatzen nauena. Orain arte udan animalia ugari izaten zen bertan bazkatzen, baina orain non bazkatu behar dute?

Denok dakigu nolako itxura hartzen duten mendiek hainbeste kamioi ibilli ondoren;

lokatza alde batetik eta lur zapaldua eta belarrrik gabea bestetik. Hori guztia, jakina, uda hasterako mendia ateratzea amaitzen badute, eta amaitzen ez badute? Animalia guztiak uxatu besterik ez dituzte egingo.

Dena dela, Udalak Diputazioak egin behar dituen plano eta egitarauen txosten guztiak eskatu ditu, baina, nik dakidanez oraindik ez dituzte jaso.

Gustatuko litzaiyuke bertan zer egin behar duten eta non, nola eta noiz arte iraungo duten lan hauek jakitea.

Eider Jauregi



AGINAGA


Berri labur batzuk

Aginagan etxe berri asko eraikitzen ari dira, beste "etxe" mota batzuk, berriz, berritzen ari dira. Gure herriko hilerrak berrikuntzak beharrezkoak zituela eta, berritze lanetan dabilta bertan. Ea dotore-dotore uzten duten eta jendea gehiago joaten den gure hildakoak bisitatzen.

Bestalde, azken egun hauetan pertsona ugari ikusi dugu plaza aldean argazkiak ateratzen. Eskola zaharrari argazkiak atera dizkioten hauek arkitektoak omen dira eta frontoi berriaren inguruan proiektuak egiten ari omen dira, gero lehiaketara aurkezteko. Ea ba

hauek ere proiektu dotore-dotoreak egiten dizkiguten!

Joan den hilaren 19an, Aginaga aldean ibaia kolorez bete zitzaigun, bertan hasi baitzen Oriok urtero antolatu ohi duen traineru jeitsiera. 20 traineru izan ziren bertan, tartean Castro, Astillero eta Ilunbe eta jende ugari bildu zen bertara,



Oskar Santamaria



eguraldia lagun ez izan arren, estropadaren hasiera ikusi eta nork berea animatzera. Oriok irabazi zuen.

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi gure herriko bi lagun: **Inaxio Murua eta Joseba Larburu** Holanda aldera joan zitzaizkigun munduko sokatira txapelketa jokatzera igeldotarrekin batera.

ZUBIETA

Telebista

Kupidagabeki, egun osoz eta hau gutxi balitz bezala, baita gau osoz ere; sukaldeen, logelatan, egongelatan,...elkarrentzako nahiz baka-rrarentzat, haur txikiarentzat nahiz adin haundikoentzat; ez bat edo bi aukera, beste hainbeste eta gehiago ere bai; ez gure hizkuntzan bakarrik, baita auzokoetan ere, ez gure herri-tarrez soilik, baizik eta mundu eta lurralde ezkutuenetakoak, kanpo eta zokorik zokoenetakoak; axaletik informaturik edukitzeko, arrunkeria, gogorkeria, erokeria...arrastan zaborra utziz. Honek baino, zeinek hobeki azaldu nola bizi, zer arnastu, zer pentsatu, nola dibertitu? Gure bizitzaren sakoneraino sartuz Egiatzkoa dena itxuraldatuz eta sarritan ipurdiz gora jarritz. Zeri

eman diogu sarrera gure barrunberik intimoetaraino sarraraziz, ez behin edo bitan egunero eta egun osorako nahi izanez gero?

Bestaldeko erresuma eta kulturaren berri emanaz abiatuz gero, Espirituak hots egiten duen leku berezi eta galantetara edo ezin ederrago diren paisietan zehar joanez gero, izatearen mundu aberasgarri oparo eta xumea proposatuz gero...ez omen du inor gutxi baina ixtimatzen ikuslego ttipia izanik, laburtua, ezkutatua bedi!

Dibertimendu axolagabe eta arrazoimenaren erresuma kalitatezko izaeraz erantzitako formarena eta itxurarena jatzeko etengabeko jardueraz. Dena zilegi dela irakatsi nahi digun

Karmele Urdanpilleta



eta egiaz sinesten ari garen egoera gezurti eta tranpatia. Eta denok berdintzen gaituelarik, denok kontu berak, dibertimendu berak, izaera bera, pobretasuna eraginez. Zenbat eta diferentzia gutxiago orduan eta antzekoago, denok gauza beretan okupatuak!

Non dira gure gizarteko berezitasunak, mitoak, elezaharrak, kondairak, xarmagarritasuna? Non desberdin izatearen historia, nortasun, poz, ilusio, bizi-poz? Nola komunikatu sentiberatasunez hazteko, hartu-eman maitetsuak sendotzeko, iparra aurrean hartu eta hazkundera bultzatzeko? Ba ote adierazi beharrik zertaz ari naizen irakurle? Honezkero asmatu duzu ziur-riren.

Gaur egun 5.313 biztanle ditu Usurbilek, duela 4 urte baino 48 gehiago

1 997. urteko urtarrilean Usurbilgo biztanleriaren inguruko erreportai bat kaleratu genuen. Aurten ere Usurbilgo biztanleriari errepaso txiki bat egitea interesgarritzat jo dugu, ditxosozko 2000 efektuak herriko demografian eraginik izan duen ala ez ikertzeko. Eraginik izan badu, onerako izan da behintzat. Izan ere, azken lau urteetako zenbakiei erreparatzen badiegu populazioak gora egin duela ohar-tzen baikara.

Azken lau urteetan herriko populazioak gora egin du. Gaur egun 5313 biztanle bizi dira, urte honetako otsailaren 11an berriro zen eroldaren arabera. Duela lau urte baino 48 pertsona gehiago bizi da Usurbilen. 1996. urtean 5265 biztanle zituen herriak eta 1998. urtean 5282.

Duela bi urte baino biztanle gehiago

Gorakada txikia izan bada ere, biztanleriak goranzko joera hartu duela esan dezakegu. Beti entzun izan dugu, eta Usurbilgo biztanleriaren bilakaeraren taula erreferentziat hartuta, gero eta gutxiago ginela herrian. Gorakada honen arrazoiak aztertzerakoan, bi aipatu genitzazke nagusi. Batetik, 1999. urtean jaiotakoak hildakoak baino gehiago izan ziren. Iaz 58 haur jaio ziren herrian eta hildakoak 44 izan ziren. 1997tik 1999ra bitartean jaiotzen kopurua 165ekoa izan da eta hildakoenak, aldiz, 133koa. Beraz, azken hiru urte hauetan jaiotakoen kopurua hildakoenak baino haundiagoa izan da.

Bestetik, gorakadaren beste faktore bat jendearen joan-etorriak izan da. Azken urtee-

tan, herritik joan direnak etorri direnak baino gehiago izan badira ere, udaletxeko datuen arabera, iaz alderantzizkoa gertatu zen. Iragan berri dugun urtean 130 pertsonak alta eman zuten eta 116 izan ziren baja eman zutenak. Beraz, gorakadaren beste arrazoi posiblea hauze litzateke.

Gizonezko gehiago emakumezkoak baino

Azken urte hauetan gure biztanlerian aldaketak somatzen ari bagara ere, badago oraindik ere aldatu ez den bitxikeri bat. Gizonezkoek emakumezkoen kopurua gainditzen dute oraindik ere. Egund 5313 biztanletatik 2724 gizonezkoak dira eta 2589 emakumezkoak. Azken urteetako datuei erreparatzen badiegu, ez baita aldaketarik egon. 1996tik hona gizonezko gehiago jaio da, nahiz eta emakumeekiko diferentzia oso handia ez izan. 1996. urtean gizonezkoen eta emakumezkoen jaiotza kopurua berdina izan zen. 21 mutil eta 21 neska jaio ziren.


EUSTATEk duela gutxi Euskal Autonomi Erkidegoan jaiotzeko jarritako izenen zerren-

da kaleratu zuen. 1996. urtean, 1997. urtean eta 1998. urtean Euskal Herriko hiru lurraldetan Ane izena izan zen nesketan nagusitu zena. Mutiletan, aldiz, Jon eta Mikel izenak nagusitu ziren.

Maddi eta Mikel nagusi

Usurbilen 1998. urtean Ane izena haur bati bakarrik jarri zitzaion. Urte horretan herrian Maddi izena izan zen jaiotzeko artean entzunena. Jaiotzen artean, 25 neska izan ziren eta hauetatik lauri jarri zitzaion Maddi izena. Iaz, aldiz, bati bakarrik. Eustatek kaleratutako datuen arabera, Maddi izenak Gipuzkoan 15. lekua hartzen du jaiotzeko jarritako izenen zerrendan. Usurbilgo zerrenda osatuko bagenu, lehen postuan egongo litzateke. Mutiletan ere beste horrenbeste gertatzen da. 1998. urtean jaiotako 28 mutiletatik lauri Mikel izena jarri zitzaion. Mutilen artean ere Aitor eta Mattin nagusitzen dira. Mattin izena herrian oso entzuna izan bazen ere, EUSTATEk kaleratutako zerrendetan ez zaigu agertzen.

Agurtzane Solaberrieta



burujabetza bidean

hamaika arrazoi abstentziorako

- * duintasuna
- * heldutasuna
- * gure ekonomia
- * demokrazia
- * ardura politikoa
- * gure kultura
- * bakea
- * koherentzia
- * herri baten etorkizun askea
- * askatasuna
- * ziurtasuna



LAN-GAI zerbitzua eta udalaren arteko zerbitzua martxan da


LAN-GAI eta udalaren artean lan merkatuko bitartekotza lanak egiteko hitzarmena sinatu berri da. Horrela, udalak, alde batetik lan bila dabilzanen kurrikulumak LAN-GAI sisteman sartu ahal izango ditu eta beste aldetik enpresetako lan-eskeintzak jaso. Guk Josune Mujika udaleko enplegu teknikariarekin hitz egin dugu.

Zer da LAN-GAI?

Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak sortutako zerbitzu dohaina da, lana eskeintzen duten eta lanean nahiz lanik gabe egonik lana eskatzen duten guztien eskura dagoena.

Nola bideratu izan da lan hau orain arte?

Orain artean Usurbilen zegoen zentru laguntzaile bakarra, Zubietako Lanbide Heziketako ikastetxea zen, baina zerbitzu honi dagokionean bertan irakasten dituzten espezialitateetara mugatzen zen beren lana. Horrela, espezialitate horietan prestakuntza jaso ez zutenek Donostiara joan behar izaten zuten gehienetan. Ekimen honen bitartez usurbildarrei lekuan lekuko zerbitzu bat eskeintzea izan da udalaren nahia. Honela, espezialitateei dagokionean Lanbide Eskolarekin eskeintza osagarria osatu du, herritar guztiek aukera hau herri bertan izan dezaten.



Zer egin behar da egitasmo honetan parte hartzeko?

Dagoeneko Usurbildik kanpo izena eman dutenak beraien kurrikulumak udalera ekartzeko aukera izango dute, beraien historial profesionalen aldaketak gertatzen direnean, eta hau eguneratzeko aukera bere udalerrri berean dute. Horretarako nahikoa da udalera gerturatu eta trasladoaren eskabide orri bat betezea. Oraindik izena eman ez dutenek berriz, hala nahi izanez gero udalera deituz elkarrizketarako eguna eta ordua emango zaie, ondoren ordubeteko elkarrizketaren bitartez, datuak jaso eta LAN-GAI sisteman sartzeko. Bestalde, udalak inguruko enpresen enplegu eskaintza biltzaile bihurtu nahi du, horrela, lan eskatzaileak enpresa horiekin harremanetan jartzeko.

Honen inguruan dagoeneko pauso batzuk eman dira ezia?

Bai. Eroskiren merkatal gunean irekiko diren zenbait enpresekin harremanetan jarri gara izan behar ditzazketen pertsonal beharrei erantzun bat emateko LAN-GAI erreminta eskeiniz.

Zer da azken finean hitzarmen honen bidez lortu dena?

Laburbilduz esan daiteke inguruko enpresetan sortuko diren lan aukerei erantzun bat eman nahi diegula, lan eskaeren eta eskeintzen arteko bitartekotza lana eginez, langabetuei lekuan lekuko zerbitzua eskeiniz eta beraien kurrikulumak udaletik kudeatuz. Eta enpresei, berriz, lana egiteko prest dauden gaitutako pertsonak biltzen dituen datu-base osatua eskainiz.

**SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA**
IOSU
Ugaldea poligonoa 36 - 2^o Esk
Usurbil - Gipuzkoa 37 19 54

**INDYSTRIA ET
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA**



Urtinea Elkarte

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

Ostape Aranguren

**GASA
eta
BEROKUNTZA**

Telf: 943 36 43 64 - 610015389

Emakumeek ere badakite kamioiak eta autobusak gidatzen



Martxoaren 8a egun seinalatua izaten da emakumeentzat: emakumeen eguna, alegia. Egun berean batzuk, asteburuan besteek nola edo hala, han edo hemen, ospatzeko ohitura izaten dute. Guk, ordea, emakume txoferren nondik norakoak jakin nahi izan ditugu. Gizonezkoen lanbidetzat hartua izaki, herriko bi autobus gidari eta kamioi gidariren esperientziak zuengana-tuko dizkizuegu.

Emakumeak dira, baina gizonezkoen lanbidea kontsideratuta dagoen lanean dihardute aspaldi honetan. Edurne Agirretxe kamioiarekin hasi zen, eta gaur egun Donostiako autobusak gidatzen aurkituko duzue. Ana Aizpurua, berriz, gehinok ezagutuko duzue, Aizpurua-tarren autobusean ikusiko duzu behin baino gehiagotan.

Biek badute berezitasun bat: Euskal Herrian eta Espainia osoan autobus edo kamioiarekin hasi ziren lehenengotako emakumeak izan ziren. Edurne izan zen lehenengoa, Ana hirugarrena. Hala ere lehen emakume gutxi ikusten baziren, orain ez dira askoz gehiago ikusten. Hala ere, oztupoak gaindituz,

lana gogotik eginaz gizonezkoak baina gutxiago ez direla argi utzi dute biek. Hitz itsusiak entzun behar izan dituzte, egoera zailak pasa dituzte, baina hala ere aurrera egin dute.

Zenbat aldiz entzun izan ote dugu "emakumea izan behar" esaldia. Hauek behintzat, hankaz gora bota dute topiko hori. Izan ere, Anaren arabera hori esateko arrazoirik ez dago. "Hori esaten duenak lelo bat ikasita dauka, baina esaten duena oso motza dela iruditzen zait. Hori hain orokorrean botatzeko arrazoirik ez daukate. Niri horrelakotetan isiltzea tokatzen zait, baina amorrazio haundia ematen dit. Azken finean topiko horiek ez zaizkit asko gustatzen".

Ana Aizpurua (Aizpurua Autobusak-eko gidaria)

“Emakumezkoek eta gizonezkoek dituzten aukerak ez dira berdinak”



Duela 18 urte atera zuen autobus gidariaren karneta, 24 urterekin. Aizpurua autobusetako batean behin baino gehiagotan ibiliak dira herriko nahiz kanpoko haurrak. Autobus edo kamioiak gidatzeko baimena atera zuen hirugarren emakumea izan omen zen.

Berea afizioa eta bokazioa izan zen. Haurra zenean ez zuen autobus gidaria izango zenik pentsatzen, baina famillian hainbeste gidari izanda autobus gidaria izateko arra sartu zitzaion. “Zergatik ez?” bere buruari esan eta gidari baimena ateratzea erabaki zuen. “*Hasieran etxean ni gidaria izango nintzenik ez zuten uste. Kamioian ibiltzeko baimena atera nuen lehendabizi, eta autobusarena ondoren. Poza izugarria izan zen. Ez zidaten oztoporik jarri eta orduan babestuta sentitu nintzen. Zuk zure lana gainditu baduzu besteek zergatik jarri behar dizkizute oztopoak?*”.

Hasieran berria zen emakume bat autobus baten bolantean ikustea eta komentario asko entzun ditu. “*Hasieran haurrekin ibiltzen nintzen gehien bat, eta hauek etxean entzundakoa esaten zuten. Emakume bat autobusean eta bere ama etxean; hori ez zuten ulertzen*”. Gidaria ema-

kumea izanik mesfidantza nagusitzen omen da, baina berak hori ez du aintzakotzat hartzen. “*Denborarekin, gauzak ondo eginez eta besteentzat eredu izanaz gauzak bere onera etortzen dira*”.

Oztopo zuzenik ez, baina zeharkakoak bai

Oztopoak oztopo 18 urte daramatza autobusak gidatzen. Oztopo zuzenik ez, baina aipatzen ez diren horietakoak jarri omen dizkiote. “*Nirekin nork joan behar duen, bestearekin nork... bezeroa aukeratzeko garaian emakume eta gizonezkoen artean ezberdintasuna badagoela argi gelditzen da. Bidaia motetan ere ikusten da hori. Zergatik joango da emakume bat egun askotarako urrutira gizonezko batek emakumezkoa estuasunean jarri gabe lan hori egin dezakeenean? Bestalde zenbait hitz itsusi entzun baditut ere ez dut arazo aipagarririk izan*”.

Anaren esanetan gizonezkoek eta emakumezkoek dituzten aukerak ez dira berdinak. “*Emakumeak baldarrak garelako pentsatzen du jende askok, gizonezkoaren subkontzientean hori sartua dago eta hori ez da horrela. Zerbait demostratu behar bagenu bezala bizi gara emakumeak. Badi-rudi, bizitza guztian zerbait demostratu behar diogula gizarteari, eta gizarte horretan gizonezkoak du pisu haundiena. Hauek dute boterea erabaki maila guztietan, inork eman ez diena baina beti suposatzen dena*”.

Lehen autobus gidaria izateko gogorra izan behar zen, mekanika jakitea ezinbestekoa zen, baina gaur egun horrelakoak atzean gelditu dira. “*Arazoen aurrean emakumeek eta gizonezkoek berdin jokatu lukete, baina txofertzan emakumeek ez zaizkie ateak irekitzen. Hori guztia emakumea txofertzan ikustea ondo ikusia ez dagoelako da*”.

Edurne Agirretxe (Donostiako autobusetako gidaria)

“Ez emakumezkoa eta ez gizonezkoa, garai hartan ni txoferra nintzen”



Baserritarra da jaiotzez eta baserrian gizonezkoek bezalaxe lan egina da. Halako batean kamioiak gidatzeko baimena atera eta Europan zehar ibili zen bi urtez. Espainia guztian bera izan zen nazioarteko garraioan nominan egon den lehen emakumea.

Aita Patxi txoferra zen eta txiki-txikitandik kamioiak zituen gustoko. 18 urte bete zituenean kamioi gidari izateko baimena atera eta trailer batekin ibili zen bi urtez Europan zehar. *“Garraiolari batzuek lan bila zebiltzan enpresa batera joateko esan zidaten eta han segituan eman zidaten lana. Goizean lan eske joan eta arratsalderako Parisa joan behar nuela esan zidaten”*.

Bidean izugarriak gertatu omen zitzaizkion. Kamioia ez zuen ezagutzen eta abiadura kaxa ere ezberdina zuen. *“Hendaia ateratzerakoan dagoen aldapa batean ezin nuen abiadura murriztu. Frenatu, gelditu, eta kamioiaren argibideak irakurtzen hasi nintzen. Gero Parisen han ibili nintzen galduta, buelta batera, buelta bestera... azkenean lortu nuen joan behar nuen tokira iristea”*. Kamioiarekin hasi zenean, 22-23 urte gazte-ago izanda segurtasun haun-

dia zuen eta ez zuen arriskurik ikusten.

Bere bizitzari atzera begiratzuz gauza bat argi dauka: *“momentu haietan emakumea nintzela ahaztu nuen, ni txoferra nintzen, ez emakumea eta ez gizon”*. Frantzia eta Belgikako zenbait enpresetan emakumeei ez zieten gidatzen uzten, eta enpresa bertara sartzea ere ez. *“Haietako enpresa batetara joan nintzenez ez zidaten sartzen uzten. Txoferra ni nintzela demostratu behar izan nien”*.

Urte asko pasa dira Edurnek kamioiak gidatzeari utzi zionetik eta kamiogidarien lan baldintzak ere asko aldatu omen dira. *“Garai hartan ordu asko sartzen ziren. Parisen egotea etxean egotea bezala zen, nahiz eta 800 kilometrotara egon. Lan gogorra zen eta bakardadea zen nagusi. Irrati txiki bat lagun hartu eta orduak egiten genituen errepi-dean”*.

Gizonezkoek beste bat izango banintz bezala hartu ninduten eta harremanak onak izan ziren”.

Ondoren, duela 19 urte Donostiako autobus zerbitzuan hasi zen lanean. Eskatera egin zuenean aurreneko hitza eze-tza izan zen, baina langileen greba baten ondoren lanean hasi eta oraindik hor dihardu. 10 urtetan bera izan zen emakume gidari bakarra, egun berri, 5 dira. Hasieran arazo bat edo beste izan zuen emakumea izateagatik. Batean amona bat sartu zen eta ni ikustean esan zuen: *“emakume batekin ni ez noa”*. Autobusetik jeitsi eta ondorengoaren zain egon zen. *“Beste batean emakume batek zera esan zidan: nire gizona lanik gabe eta emakume bat gizonezkoarena den lanpostua betetzen”*. Horrelakoak entzun behar izan ditut, baina nire ustez lan hau ez da gizonezkoarena edo emakumezkoarena, hemen trebezia duenak egiten du lana”.

“Zubietako mila urteko herria” liburuaren aurkezpena Zubietan

Zubietako historia biltzen duen “Zubietako mila urteko historia” liburuak kalean da dagoeneko. Pasa den otsailaren 27an Zubietako eskola txikian egin zuten aurkezpena, eta 50 zubietar inguru bildu ziren bertan. Joxe Ramon Zubimendi zubietarra da liburuaren egilea eta Zubietako Herri Batzarra eta Usurbilgo eta Donostiako udalak babesleak. Argitaratzailea berriz, *Noaua! Kultur Elkarte*a izan da.

“Herriak hala nahi omen zuela-eta, Zubietaren historia idatziko ote nukeen galdetu zidan bertako alkateak, gure alkateak. Ondo aditu nion, neronek ere gogo bizia neukan-eta, aspalditik, neure herri txiki, herri bitxi, Gipuzkoako Zubietan honen berri jakiteko gogo bizia. Baina herriarentzat idazteko; tesi doktoraletako hizkera eta estiloa baino maiteago baitut herriaren euskara eta estiloa”.

Joxe Ramon Zubimendik bere liburuaren aurkezpenean esaten duen moduan Zubietako Batzarra izan zen liburu honen eragile nagusia. 1998. urtean Joxe Ramoni lana proposatu eta berehala hasi zen hau lanean. Bien bitartean, Herri Batzarrak *Noaua! Kultur Elkarte*ari argitaratzailea izateko aukera eskaini zion, eta baita hauek onartu ere.



Bila eta bila agiri ugari esku-ratu ditu Joxe Ramonek. Gertakari historikoak, Zubietak independentzia galdu zueneko kontuak, agiri zaharrak... hainbat kontu garrantzitsu eta xeble aurkituko dituzue liburuan. 200 orrialdeko liburu egitea zen hasierako asmoa; 300 orrialdetara iritsiko zuela uste zuen gero, 420 orrialde... 512 orrialdeko liburu mardul eta interesgarriekin amaitu da zubietarraren lana. Azken finean sokatik tiraka hasi eta

ezin izan du sokaren amaiera topatu eta hamaikatxo gorabehera gelditu dira idatzi gabe.

Aurkezpenean bildu ziren zubietarrek eta gainontzeko guztiek adi-adi jarraitu zituzten **Joxe Ramon Zubimendi**, **Xabier Arregi** eta Zubietako alkatea den **Isidro Zalduaren** hitzak. Aurkezpena bukatu ondoren, berriz, liburu banatu zuten zubietarren artean. Izan ere, Zubietako Herri Batzarrak bertako etxe bakoitzean liburu bat banatuko du dohainik.

Bestalde liburu hau *Noaua! Kultur Elkarte*ak Bordaberrin duen egoitzan egongo da salgai. Bazkideek 500 pezeta ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek berriz, 975 pezeta.

Josu Aranberri



MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen modako arropa hemen aurkituko duzu


Etxebeste kalea,3 - Tlf. 943 36 11 06

JARRI HEMEN ZURE PLUBLIZITATEA

Telf: 943 36 03 21

Martxoaren 10ean berriz zuekin

Noaua! aldizkaria hamaskoria dela bada-kizue denok. Hilean bi aldiz zuen sukalde txokoraino sartzen da. Hala ere, oraingo honetan uste baino lehenago iritsiko zaizue. Ale hau martxoaren 3rako zuen artean izango bada ere, martxoaren 10ean 85. alea kaleratzeko asmoa dugu. Urtarrilean ale bat atera gabe gelditu zenez, oraingo honetan ateratzeko ahaleginak egingo ditugu. Ez noski orduko berriekin, labetik atera berriak izango direnekin baizik.



Arraun denboraldia hasteko oraindik hilabete abatzuk falta badira ere, arraunlariak prestakuntza hasi dute dagoeneko. Pasa den otsailaren 19an Oria ibaian behera ikusi ahal izan genituen hainbat trainera. Banaka, banaka, Aginagatik Oriorako jeitsiera egin zuten. Eguraldiak ez zuen asko lagundu, haizea eta euria izan baitzituzten lagun. Hala ere, oriotarrek ez zuten hutsegin. Beraiek egin zuten jeitsiera honetan denborarik onena. Bigarren postua Astillerok eskuratu zuen.

Paris etxeko parkea lehiaketara


Hilabeteko epean jakin-godu dugu nork egingo dituen Paris etxe atzeko parkeko lanak. Dagoeneko udalak lehiaketa-rako deia egin du, eta epe horretan aurrekontuak aurkeztu beharko dituzte lan hauek egin nahi dituzten enpresek. Parkeaz gain, Kale Nagusia 10eko urbanizazioa ere berrituko dute. Bestalde, Artzabalgo normen aldaketei hase-rako onespina eman zitzaizen otsaileko plenan. Udazken aldera lanean hasteko moduan izango omen dira.



Jende askok Zubieta aldetik bueltatxo bat emateko ohitura du. Santuenea aldetik Zubietara joan eta zerratokitik bueltan Kalezar aldetik itzultzen dira. Beste askok, ordea, badu Lasartetik barrena Txikiertitik joateko ohitura. Orain arte azken hau arriskutsua izaten zen, baina hemendik aurrera leku egokiagoa aurkituko dute ibiltariek. Txikiertitik Lasartera joateko, Michelingo aparkaleku pareraino bidea zabaldu eta espaloia jartzeko lanetan ari dira.



Euskal presoak Euskal Herriratzeko eskatuz hainbat ekintza burutu dira azken bi asteetan. Otsailaren 20an, goizeko 10.30ak aldera 15 pertsona inguru bildu ziren Aginagako elizaren aurrean eta meza bukatzean informazio orriak banatu zituzten. Ondoren, eguerdiko ordubatean giza katea egin zen. Herriko frontoitik hasita, Atxegaldetik barrena, Kale Nagusia pasa eta berriz ere frontoira iritsi ziren giza katea osatu zuten 50 pertsona inguru.



TXIRIBOGA

TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea


Fatxaden konponketa



Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67

6 domina judoko Euskadiko junior txapelketan



Usurbil Judo elkarteko neska-mutilek indarrez hasi dute urtea. Azken urteetako bideari jarraituz herrira dominak ekartzen jarraitzen dute. Leioan jokaturako Euskadiko Junior txapelketan sei domina lortu zituzten eta Espainiako txapelketara sailkatzeko sektorean Andoni Aizpurua eta Josu Arrutik eskuratu zuten txapelketa horretan parte hartzeko aukera.

Zaharrak berri, herriko judokariak dominak ekartzen jarraitzen dute. Leioan izandako Euskadiko junior txapelketan ez zuten hutsik egin. Guztira sei domina lortu zituzten, lau urrezkoak, zilarrezko bat eta brontzezko beste bat.

Andoni Aizpurua (-60Kg.), Iñigo

Etzanizek (-66 Kg.), Aitzol Arrospidek (-73 Kg.) eta Josu Arrutik (+100 Kg.) lortu zituzten urrezko dominak, zilarra Alex Sanchezek (-60 Kg.) bereganatu zuen eta brontzea Josu Vicentek (-90 Kg.).

Pasa den otsailaren 20an berriz, Espainiako txapelketako hegoaldeko sektorea jokatu zen Oretetan. Bertan izan ziren urrezko domina lortu zuten Usurbil Judo Elkartekolau judokak, eta aurrerantz egitea horietatik bik bakarrik lortu zuten: Andoni Aizpurua eta Josu Arrutik. Beste

Andoni Aizpurua eta Josu Arrutik Espainiako txapelketa eskuratzeko aukerarekin

biek ezin izan zuten aurrera egin. Iñigo Etzanizek eta Aitzol Aizpurua laugarren postua eskuratu zuten Errioxa, Aragoi, Nafarroa eta Euskadiko judoek parte hartu zuten sektorean.

Emaitzak

Futbola

Otsailak 19-20

Usurbil F.T 4 Allerru 4 (1.R.)
Amaiak Bat 2 Usurbil F.T 1 (1.ju.)
Allerru 1 Usurbil F.T 3 (2.ka.)
Usurbil F.T 0 Antoniano 1 (n.)

Otsailak 26-27

Arretxabaleta 0 Usurbil F.T 0 (1.R.)
Usurbil F.T 0 Burumendi 3 (1.ju.)
Ordizia 3 Usurbil F.T 3 (n.)
Eibartarrak 1 Usurbil F.T 3 (2.ka.)

Eskubaloia

Otsailak 19-20

Usurbil K.E. 26 Urola 20 (2.N.)
Arrate 24 Usurbil K.E. 15 (ju.m)
Arrate 20 Usurbil K.E. 14 (k.m)
Usurbil K.E. 19 Leizaran 3 (k.n.)

Otsailak 26-27

EHU-UPV 31 Usurbil K.E. 23 (2.N.)
Usurbil K.E. 15 Urdaneta 23 (ju.m)
Usurbil K.E. 21 Urdaneta 21 (k.m)
Leizaran Txiki 31 Usurbil K.E. 23 (k.n)

Futbol aretoa

Karobi tab 1 Gorren 5
Cong. Iceberg 5 Antxeta 2

Laburdurak

R.: errejionalak ka.: kadeteak
N.: nazionala n.: neskak
ju.: jubenila m.: mutilak

JUANTXO
Burdindegia



Kale nagusia, 10
Usurbil

☎
37 00 08

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

N • U
Ileapaindegia

MISTOA
Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Arizeta 2-2 1.A
Tel.: 943 36 19 51

Entrenatzaile aldaketa Usurbil Futbol Taldeko 1. errejional taldean

Orain arte 1. errejional mailan Usurbil Futbol Taldeko entrenatzaile izan den Paulino Dominguezek taldea uztea erabaki zuen pasa den otsailaren 21ean. Harane futbol zelaian Allerruren aurka ia bigarren zati osoa hiru jokalaria gehiagoz jokatu bazuten ere, launako emaitzaz berdindu ondoren hartu zuen erabakia. Orain, Juan Mari Azkuek hartu du taldearen ardura.

Aurtengo denboraldian iaz baino estuasun haundiagoak pasatzen ari da 1. errejional mailako Usurbil F.T. taldea. Duela bi denboraldi igoera lortu ondoren, iaz sailkapenaren erdialdean bukatu zuten denboraldia, baina denboraldi honetan gauzak ez doaz nahi bezain ondo. Azken hiru partiduak galduta, neurketa garrantzitsua zuten Harane futbol zelaian Allerruren aurka pasa den otsailaren 19an, baina gauzak okerragotu besterik ez dira egin.

Lehen zatia 3-2 irabaziaz amaitu zen, baina aurkariak 3 jokalaria gutxiagoz gelditu ziren lehen zati horretako azken jokaldian epaileak bereak eta bi egin ondoren. Bigarren zatian, ordea, Allerru hiru jokalaria gutxiagoz ari zela, 3-4 aurreratu zen eta usurbildarrek launako berdinketa lortu bazuten ere taldeak eman zuen itxura ez zen ona izan. Horren ondorioz, Paulino Dominguez entrenatzaileak taldea uzteko asmoa zuela jakinarazi zien jokalariei. Esan eta egin. Astelehenean bilera egin ondoren, bere kargua utzi zuen Paulinok.

Hemendik aurrera Joxe Juan Azkue izango da Usurbil F.T.ko entrenatzaile berria. Azken



urteetan Orioko taldeko entrenatzaile izan da 1. errejional eta preferente mailan. Denboraldi hasieran Preferente mailako Pasajes taldean egon zen, eta lehen lau partiduak irabazi ondoren, taldea utzi behar izan zuen. Lehen ere entrenatzaile izana da Usurbil F.T.n. Garai batean jubenil mailako taldea 2.jubeniletik 1.jubeniletara igotzea lortu zuen, eta maila honetan denboraldi politak egin ere bai.

"Entrenatzaile berria garai-pen segurua" dio esaera zaharrak, baina talde honen kasuan ez zen hori bete. Arretxabaletan bertako bigarren taldearen aurka zuzendu zuen bere lehen partidua Azkuek, eta hushako emaitzaz amaitu zen neurketa. Multzoan 16 talde dira, eta usurbildarrak 12. postuan daude 20 punturekin, azkenurrekoak baino bi puntu gehiagoz.



Usurbil F.T. 2.errejionaletik 1.errejionalera igo zuen entrenatzailea

Urte asko 1.errejional mailan

egin ondoren, behea jo zuen Usurbil F.T.ko errejional taldeak. 2. mailara jeitsi eta handik bi urtera desagertu egin zen taldea 1994an. 1996-1997 denboraldian, ordea, Paulino Dominguezek errejional taldea berpiztu zuen.

Futbola utzia zuten herriko jokalariek Harane futbol zelaian jokatzerantz animatu zituen, herrikanpo jokatzen zutenetako batzuk ere herriko taldera itzuli

ziren, eta ia herritarrez osatutako taldea eraiki zuen Paulinok.

Lehen urtean taldea 1.errejional mailara igoko zuela esana zuen, baina bi urte behar izan zituen horretarako. Hala ere, bada zerbait. 2.errejional mailan hainbeste talde egonda ez baita erraza mailaz igotzea.

Bakoitzari berea. Paulinok lortutakoa hor geldituko da Usurbil F.T.ren historian. Herriko futbol taldearen egoera hobetzeko, goian esandakoaz gain, lan asko egin baitu.

Batzar Orokorrak iazko balantzea eta aurtengo egitasmoak onartu ditu

Noaua! Kultur Elkarteak urteroko Batzar Orokorra egin zuen pasa den otsailaren 26an. Bazkideei urteko gorabeheren berri eman eta 2.000 urterako plangintza aurkeztu zitzaion. Azken urteetako maldan beherako bideari jarraituz, ez zen bazkide ugari bildu udaleko pleno artean. Iaz kezagarritzat jo bagenuen aurtun zer esanik ez. 470 bazkideetatik hogeitahiru lagun besterik ez baitziren agertu.

Agertu edo ez agertu, bertan ziren bazkideek iazko urtearen balantzea ahobatez onartu zuten. Ondoren 2.000 urteko egitasmoa aurkeztu zen eta hemen ere ez zen arazorik izan.

Aldizkariari dagokionez hamabostero etxean jasotzen duzuen aldizkaria gehiago egonkortzea da erronka nagusia. Iazko bideari jarraituz, 23 ale kaleratuko ditugu. Gutxieneko kopurua 24 orrialdekoa izango da, baina gaien kopuruak hala agintzen duenean 28 orrialderako pausoa



emateko ez da beldurrik izango. Hori bai, gehigarriak ere ez ditugu ahaztuko. Iazko azken alean gainera, pauso garrantzitsu bat eman genuen: koloretako aldizkaria. Publizitatea jartzen dutenen jarrera ona ikusita aurtun ere bide horretatik jarraitzeko asmoa dago.

Elkartearen ihaurduerei dagokionez ez da aldaketa nabarmenik izango. "Zubieta, mila urteko herria" liburua argitaratu ondoren, emaitza ikusita apustuarekin tinko

jarraitzea aurreikusi genuen. Horregatik, urtez-urteko beka deialdiarekin jarraituko dugu aurtun ere. Herriko tabernariekin elkarlanean udaberriko eta udazkeneko ekitaldiekin jarraitzeko asmoa dago, eta iaz hain arrakastatsua izan zen "Plis plas, txalo ta jolas" egitarauak ere emango du zeresanik.

Noaua! Kultur Elkarteak ia 10 milioiko aurrekontuari egin beharko dio aurre 2.000 urtean.



Etkez etxeko bazkidetza kanpaina

Gu ere Mahomaren modura arituko gara aurreantzean, mendia ez datorrela guregana? Ba, gu joango gara mendira. Momentu honetan 470 bazkidek osatzen dugu gure familia hau, eta familia haunditzeko gogoz gabiltza, ze arraio! Gure Mahoma Aintzane Aizpurua da, hementxe argazkian ikus ahal dezakezuen. Beraz, badakizue, ireki zuen etxeko atea Noaua! Kultur Elkarteari eta egin zaitez bazkide. Kafe goxoa prest izan Aintzane zuenera joaterako, familikoak goxo tratatu behar baitira. Berehala jarriko dugu martxan etkez etxeko bazkidetza kanpaina, beraz, aspaldi zabiltzala bazkide egin nahian eta nagi antzera ez zarela gurera gerturatu, zain egon eta joango gara, ordura arte, ADIO!



Inauteri, inauteri, mozorro bat, aurpegi bi

Inauteri egunak oso pozik gaude eta izango dira ere nobedade itxura aldatzea ez al dugu hobe? Garena agertzeko lotsarikan gabe.

Hurrengo eguna da ostiral argala, zure gorputz meharra gorde berehala, haizeak eman gabe hondarra bezala hiru kilo zorion eduki ditzala.

Inauteri, inauteri, mozorro bat, aurpegi bi

Ezezagun jarriaz daukagu gorputza bizitzak eskeintzen du nahiko aldakuntza ezkutuko arima egin behar bultza hau da inauterien benetako funtsa

Larunbatean festa herri guztietan, nola herri txikitari nola haundietan, gau-ilunean edo baita argietan, hor ibiliko gera gaiztakerietan.

Inauteri, inauteri, mozorro bat, aurpegi bi

Jantzia prestatu dut mozorro modura, ederki gelditzen zait jantzi zatar hura, guztiz estaliko dut benetako itxura, ta farra egingo dut besteen kontura.

Igandea Karnabal astelehena ere bai, asteartean lanik ez degu egin nahi, hurrengo egunean asteazkena ai! Berriz ere eskola egongo dela zai.

Inauteri, inauteri, mozorro bat, aurpegi bi

Lehendabiziko eguna ostegun gizena, gorputz mardulentzako nahiko aipamena, sendotasuna ez da guretzat txarrena, zoriontsu izateko nahikoa duena

Beraz saiatu denok goien eta barren, lana izango baita bukatu ondoren, ea, egun hauetan dibertitzen garen bizitza normalera iritsi baino lehen.

Egileak: *Aitziber Aranguren, Josu Ostolaza, Imanol Esnaola, Aña Esnaola eta Nerea Zubeldia*



RAMON BARCENILLA

- . Pikor- pintura eta gotele lanak
- . Papereztatze-lanak
- . Pintura-lanak oro har

Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL.
MOBILA: 629 46 09 66



Galdaragintza eta Errementaldegia

TALLERES
SETABU, S.L.
TAILERRAK

Ulgarte Industrialdea, 7 Pabiloia
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tel.: 943 36 08 48



Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43

Udarregi ikastolako ikasleek emango diote hasiera inauteriei

Badatoz inauteriak, Udarregi ikastolara bai behintzat. Martxoaren 3an egingo duten jaialdia prestatzen ibili dira azken asteetan, eta denok izango dugu ikastolako haurrek prestatutakoaz gozatzeko aukera. Orain arte 2.000. urteaz gutxi hitz egin dela? Ez dut uste, baina beraiak urte berezi horretan sartuak garela gogoraraziko digute. 2.000. urtea gaitzat hartuta dantza eta antzerkia uzartuko dituzte Oiardo kiroldegian.

Azken urteetan bada herriko inauteriei hasiera ematen dien ekitaldi bat: Udarregiko ikasle-en jaialdia. Oiardo kiroldegian batzuetan, herriko pelotalekuan besteetan, dantza eta antzerki erakustaldi polita egin ohi dute. Aurten ere ezin hutsik egin. **Mendigaña Gorostiaga** irakaslea buru dutela, haur eta gaztetxoak burubelarri jaialdi hau prestatzen ibili dira.

2.000. urtean sartuak garela gogora arazteko, martxoaren 3an, goizeko 11.30ak aldera Oiardo Kiroldegian jarri dute hitzordua. "Mendi" k esandakoaren arabera ikasturte hasieran



erabaki zuten zein izango zen gaia. *"Inoiz, musika obra bat hartu, eta obra hori gaitzat hartuta jaialdia moldatu izan dugu. Hala ere, azken urteetan aparteko gaiak hartzen ditugu, gero musika gai horretara moldatuz. Aurten 2.000. urtearen inguruan landu dugu guztia. 2.000. urtearen hildotik horren barruan landu daitezkeen gaiak aukeratu behar izan ditugu, beti ere mozorroak egiteko eta dantzak aurkitzeko bideragarriak izan daitezkeen gaiak".*

Aurtengo jaialdi honetan

lehen hezkuntzatik hasi eta Derrigorrezko Batxiler Hezkuntzako 3. maila bitarteko ikasleek parte hartuko dute. Txikiak ordulariak eta egutegiak izango dira. Natura eta kutsaduren arteko borroka ikustezin hori dantzaz agertuko dute ondoren. Espazioruntz bidaiatzeko aukera ere izango da, eta planeta, astronauta eta espaziuntzi gizatiarrek eramango gaituzte haruntz. Beste talde batek, kontsumoa gaitzat hartuta saltaileak, erosleak... gizartearen egoera beltza, depresiboa agertuko dute. Ordenadoreak, aberatsak eta txiroak... ez da ezer faltako jaialdi honetan.

D.B.Hko hirugarren mailakoak ere bai

Aurten bada berrikuntza bat. Orain arte D.B.Hko hirugarren mailakoak ez zuten jaialdi honetan parte hartzen, baina aurten, beraiak eskatuta, maila horretako ikasle batzuk diruaren mundua aurkeztuko dute: euroak, pezetak, liberak... Hori bai, guzti hau ikusi nahi baduzu martxoaren 3an 11.30etan Oiardo Kiroldegian duzu hitzordua.



Martxoaren 4rako galiarren eta erromatarren inbasioa iragarri dute

Noaua! aldizkariak jakin ahal izan duenez, erromatarrei Usurbil hartzeko agindua eman die Cesarrek. Erromako gure infiltratuak jakin ahal izan duenaren arabera, Oriako ibaian lehorreratuko dira martxoaren 4an. Hala ere, ez datoz bakarrik, erromatar gosez, galiarrak usurbildarrei laguntzera baitatuz. Asterix eta Obelix famatuz gain, herri osoa etorriko direla agindu omen dute. Badakizue, etxean basurdeak badituzue ondo gorde.

Ez da txantxetakoa. 2.000 urteko inauteriak prestatzen ibili den taldeak iragarri diguna kontatzen besterik ez gara ari. Iazko inauteriak paffal xamar joan zirela eta, erromatarrek gure ahulezia non dagoen antzeman omen dute eta dagoeneko bidean omen dira. Hau ikusita, inauteri taldeak galiarrei laguntza eskatu die, eta hauek ez dute ezezkorik esan.

Baietz ba! Usurbil galiarrez eta erromatarrez beteko da



martxoaren 4an. Ez dakit benetako galiarrak eta erromatarrek ordurako iritsiko ote diren, baina herrian badira haiek ordezkatu ditzaketanak. Herriar guztiak galiarrez eta erromatarrez mozorrotzea besterik ez da falta.

Kalejira eta afari merienda

Azken urtean inauteri festa honek izan zuen gainbehera ikusita gazte talde batek hartu du hau indarberritzeko ardura, eta herri osoan galiar edo

erromatarrez mozorrotzeko deialdia egin dute. Arratsaldeko 18.00etan trikitilari, buruhandi, erraldoi eta zankoekin egingo den kalejiran parte hartzera gonbidatzen zaituzte. Indarrak galtzeko beldur bazara, lasai! Kalejiraren ondoren afari merienda egingo da eta herriko frontoian. Han agertuko dira Markelius, Motzalius eta Kermakurzix herriko agintari gorenak eta beranduxea-go Jakobamix druidak prestatutako edabe majikoa edan ahal izango dute guztiak.

Inauteriak 2.000: Galiarrak eta erromatarrak

* Goizeko 11etan, HAURRENTZAKO JOKOAK:

- Aulki jokua
- Txingak
- Sokatira
- Lokotxak
- Mozorro prestaketa:
- Karetak, marrazkiak...
- Mozorro lehiaketa

* Arratsaldeko 5etan HERIF MAGOA.

* Arratsaldeko 6tan KALE ANIMAZIOA:
Trikitilariak, buruhandiak, Erraldoiak,
Zankoak...

* Arratsaldeko 7tan AFARI MERIENDA FRONTOIAN : Haragi egosia, txorizo egosia , salda, sagardoa eta edabe majikoa, Jakobamix, Markelius, Motzalius eta Kermakurzix-ek girotutako galiar festa erraldoian. **BALDINTZA: MOZORROTUTA AGERTU BEHAR DA.**

* 7:30etatik goizaldera arte GAUERDI TXARRANGA herriko kale eta tabernetan.

* Goizeko 1ak aldera Jakobamix-en edabe majikoa galiar guztiok indarberritzeko.

* Goizeko 6ak aldera SORPRESA BERO BAT.



Niko Bengoetxea

- EHko zinegotzia
- Irakaslea
- 28 urte

ITXOITEN!

Eskutitz hau idazten ari naitzen bitartean urduritasunez eta inpotentziaz entzuten dut komunikabideetan Daniel Dergi preso politikoari buruzko informazio eskasaren berri; 60. eguna gose greban, eta gizartea? ITXOITEN! Notizia tamalgarrenaren zain (dagoeneko bere osasunan izango dituen ondorio larriak betirako izango baditu ere). Euskal gizarteak aspaldi exijitu zuen presoek gure herrian izan behar zutela, baina estatuek ez digute jaramonik egiten. Gu bitartean: ITXOITEN!

Euskal Herriko 5 futbol zelai bete jendez, BAI EUSKARARI aldarrikapenarenpean, euskararen ofizialtasuna Iparraldean eta Nafarroan: ITXOITEN!

Gure ekonomiaren jabe izanez gero ez genuke hainbeste prekaritate eta desindustrializazio izango, gazteak, langileak soldata soziala eta 35 orduak ITXOITEN!

Uda bakoitzean Udako Euskal Unibertsitatean ikasle eta irakasleak E. H.U. euskalduna gero eta hurbilago ITXOITEN.

Itoiz-eko urtegia eraikia, euskal gizarteak txalotu zuen solidarioen ekintzaren ondorioz zenbait atzerapen sortu baziren ere, urtegia noiz beteko duten eta Nafarroako ubidearen bitartez gure ura Euskal Herritik kanpora noiz eraman ITXOITEN.

Garzon epaileak Gara noiz itxiko duen ITXOITEN!

Euskal Herria OTANetik kanpo noiz egongo den ITXOITEN!

Inork ez ditu bere alboan nahi, baina hala ere hemenixe ditugu Polizia Nacional, CRS, Guardia Civil... Euskal Herria horiek hemendik noiz alde egingo duten ITXOITEN!!

Euskal Herria bi estatuen menpean zatitua, autodeterminazio eskubidea ITXOITEN!

Euskal gaztedia kriminalizatu, torturatua eta gartzelartua izateko zain; ITXOITEN!

Gure herria historian zehar zapaldua, etsaiekin besarkadak eman ondoren gure herria behin eta berriz traizionatua; odola, erahilketak eta gudak, gu bitartean bakea ITXOITEN!

Euskal gizarteak arlo ezberdinetan borrokatzeko gaitasuna duela argi dago, baina oraindik estatuek ipintzen dizkiguten oztopoak gaindiezinak dira, piskanaka- piskanaka estatuekin loturak apurtzea ezinbestekoa da; gure herria bake eta demokraziatzeko eskenatoki batean ikusi nahi dugu.

Madrilen eta Parisen ez dugu zer eginik. Horren lekuko historiako gertakari ezberdinak dira, eta ez da oso atzera joan behar hori egiaztatzeko. Madrilen zeinek gobernatu -PP, PSOE- gure herriarentzat berdin- berdina izan da. Madrileko hauteskundeetan ez dugu zer eginik, argi dago gure interesak han defendatzeko ZAIN-ITXOITEN- bagaude zer lortuko dugun: gure herriaren heriotza.

Horren aurrean abertzale koherente baten jarrera oso argia da: ABSTENTZIOA! MILA ARRAZOI DAUDE: EZ EGON ITXOITEN!

Lehiaketa



Nola izena du baserri honek?

Asmatzaileen artean
Bordatxo tabernan bi
pertonentzako afaria
zozketatuko dugu

Hori da hori, zenbat dakien jendeak! Baserri bat jarri eta bi izen eman dizkigute askok. Izan ere tranpatxo bat egiten saiatu gara oraingoan. **Espaldi berri** zen baserriaren izena, baina **Joselontxo-enea** ere deitua da. Beraz, hemendik aurrera badakizue bi izen dituela. Erantzun ugari jaso ditugu, baina gure kutxatik baten izena bakarrik azaldu da. **Milagros Errazkinek** izango du Patri tabernara beste lagun batekin joateko aukera. Zorionak eta ondo afaldu!

GALARRAGA GARRAIOAK

- * LUR ONGARRIAK
- * ZABOR BILKETA
- * ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46



Kima

MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

KALEZARRA KARROZERIA



Txapa konpontzea eta pi
Bankada unibe

Ugaldea industrialdea, 36
Tel: 37 36 09

LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA
INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48
Mobila: 609 888021

SAIOA ILEAPAINDEGIA

Solarium
zerbitzua

Kalezar

☎ 37 29 52

A genda

MARTXOAK 3ostirala

- **Udarregi ikastolako inauteri jaialdia** Oiarde kiroldegian 11.30etan hasita. Gaia: 2.000.urtea.
- **Euskal Herritarroken mitina** frontoian arratsaldeko 20.00etan hasita. Hizlaria: **Joseito Ibazeta** (Donostriako udaleko bozerra-mailea).

MARTXOAK 4 larunbata

- Egun osoan zehar inauteri festa herriko kaleetan.

MARTXOAK 6 astelehena

- **Urteko bigarren odol emanaldia** izango da anbulategian arratsaldeko 19.30etatik 21.30etara.
- **Euskal prozesu demokratikoaren aldeko konzentrazioa.** Bordatxo aurreko errotondan 20.00etan hasita.

MARTXOAK 12 igandea

- **Erroipe Elkarteak urteroko Batzar Orokorra** egingo du. Lehenengo deialdia 11.00etan izango da eta 11.30etan bigarrena. Gaiak: aktaren irakurketa, diru gorabeherak eta galde erantzunak.

MARTXOAK 11astelehena

- **Euskal prozesu demokratikoaren aldeko konzentrazioa.** Bordatxo aurreko errotondan 20.00etan hasita.

OHARRAK

- ✓ **Ford Escort Turbo Diesel kotxea** daukat **salgai**. SS-4609 AS. Deitu 943 36 33 90 / 943 43 54 76 telefonotara.
- ✓ **Neska euskaldun bat** eskaintzen da **haurrak gauetan zaintzeko**. Interesatuok deitu 943 37 14 47 telefonora (Belen).
- ✓ **Galtzaragainan dagoen taberna saldu nahi nuke.** Interesatuok deitu 943 36 45 98 telefonora (gauean).
- ✓ **Rossignol markako snow-board tabla** daukat salgai fijasio eta guzti. Tel.: 943 36 51 80 Kami (gauean deitu).
- ✓ **Tabernan lan egiteko pertsona bat** behar da. Deitu arratsaldez. 943 37 3844
- ✓ **Pisua salgai Kalezarren garaje eta buhardila batekin.** Interesatuok deitu telefono honetara: **943 36 66 23** (Arratsaldez).

Beldurren gestioa familian

Drogomenpekotasunaren prebentzioaren barnean Guraso Eskolak gurasoen arteko topaketekin jarraitzen du. Martxoaren 17, 24 eta 31an "Beldurren gestioa familian" izenburua daraman hitzaldiak burutuko dira. Arratsaldeko 14.30etatik 16.30etara izango da. Hitzaldi hau 6 eta 12 urte bitarteko haurrentzat zuzenduta dago. Hitzaldiko dinamizazioa Txus Congil izango da. Antolatzaileak Guraso Eskola eta udala

Eskulanak: egurra eta beiraren gaineko pintura

- * Iraupena: 10 aste, astean 2 ordu.
- * Egunak: aukera desberdinak (taldea osatzen bada)
 - Goizez: astelehena edo asteartea
 - Arratsaldez: asteartea edo asteazkena
 - Ostiralak: egun osoa
- * Apuntatzeko eta informatzeko eguna: martxoak 7
- * Ordua: 18.00etatik 19.30etara
- * Non: Udarregi zaharrean
- * Antolatzailea: Guraso Eskola

Martxoaren 4an Inauteri eguna Usurbilen

*Goizeko 11etan, HAURRENTZAKO JOKOAK:

- Aulki jokua
- Txingak
- Sokatira
- Lokotxak

-Mozorro prestaketa: Karetak, marrazkiak...

- Mozorro lehiaketa

*Arratsaldeko 5etan HERIF MAGOA.


*Arratsaldeko 6tan KALE ANIMAZIOA: Trikitalariak, buruhaundiak, Erraldoiak, Zankoak...

*Arratsaldeko 7tan AFARI MERIENDA FRONTOIAN : Haragi egosia, txorizo egosia, salda, sagardoa eta edabe majikoa, Jakobamix, Markelius, Motzalius eta Kermakurzix-ek giro-tutako galiar festa erraldoian. BALDINTZA: MOZORROTUTA AGERTU BEHAR DA.


*7:30etatik goizaldera arte GAUERDI TXARANGA herriko kale eta tabernetan.

*Goizeko 1ak aldera Jakobamix-en edabe majikoa galiar guztiok indarberritzeko.

*Goizeko 6ak aldera SORPRESA BERO BAT.



ZURE IRITZIA KONTUTAN HARTZEA NAHI DUZU?



Zeuk erabaki.



*"Garbi daukat Madrilen egon behar dela,
aurpegia eman behar dela"*

EA, zure hitzari eutsiz

Begoña Lasagabaster




*Han egonda bakarrik defenda
ditzakegu gure eskubideak tinko
eta koherentziaz.*

Begoña Errazti



*Ezin da aukerarik galdu Euskal
Herriaren etorkizuna erabakitzen
den erakunde guzti-guztietan esku
hartzeko.*

Nestor Basterrretxea



*Bakeak eta euskal arazoaren
irtenbide politikoak gizartearen
esku egon behar duela aldarrika-
tzen badugu, kontsekuenteak izan
eta Madrilen egon beharra
daukagu.*



Euskal Sozialdemokrazia